**2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 90 GAZTERIA ETA GIZARTE SUSTAPENA

**Programa:** 92 BERDINTASUNERAKO POLITIKA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Aurrekontu Programa honen helburua honako jarduketek zehazten dute:

- AFAko langileen diagnostikoa, berdintasunari dagokionez: AFAn berdintasun politikak ezartzeko aukerak eta zailtasunak.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Foru Planari buruzko lanen hasiera.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Foru Planaren ebaluazioaren hasiera.
- Berdintasunerako I. Planaren barruan, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Batzordea sustatzeko eta garatzeko lanak egiten jarraitzea. Batzorde hori, berdintasuna sustatzea helburu duten gizarte erakunde eta taldeak ordezkatuta egoteko kontsulta organo gisa sortu zen.
- Berdintasunari buruzko sentsibilizazio kanpainak; horretarako egunik garrantzitsuenak honakoak dira, besteak beste: martxoaren 8a, ekainaren 28a eta azaroaren 25a.
- Gizonen eskutik genero berdintasunaren aldeko konpromiso handiagoa lortzea xede duten ekimenei berariazko laguntza ematea, genero indarkeriaren aurkako gizarte sentsibilizazioaren alde, talde batzuek beren orientazio sexuala dela-eta jasaten duten bereizkeria ezabatzearen alde eta egoera ahulean dauden emakumeak gizarteratzearen eta laneratzearen alde egiteko.
- Emakumeek eta gizonek probintzian duten errealitateari buruzko ezagutza sakonagoa garatzea, azterlan eta ikerketen bidez.
- Berdintasunerako ekintza publiko eta pribatuak sustatzea.
- Erakundeen artean eta erakundearen barruan koordinatzea; azken kasu horretan, Berdintasunerako Sailen arteko Batzordearen bidez.

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009**

**Departamento:** 90 JUVENTUD Y PROMOCION SOCIAL

**Programa:** 92 POLITICA PARA LA IGUALDAD

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El objetivo de este Programa Presupuestario se concretaba en las siguientes actuaciones:

- Diagnóstico del personal de la DFA en relación a la Igualdad:. Oportunidades y dificultades para la implementación de políticas de Igualdad en la DFA.
- Inicio de los trabajos relativos al III Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Inicio de la Evaluación del II Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Continuación de los trabajos de impulso y desarrollo del Foro para la Igualdad de Oportunidades de Mujeres y Hombres, creada en el marco del I Plan de Igualdad, como órgano consultivo donde estén representadas organizaciones y colectivos sociales cuyo objetivo sea promover la igualdad.
- Campañas de sensibilización en relación con la Igualdad, entre otras los días más señalados al efecto, como son: 8 de marzo, 28 de junio y 25 de noviembre.
- Apoyo específico a iniciativas dirigidas a lograr un mayor compromiso de los hombres por la igualdad de genero, que trabajen por la sensibilización social contra la violencia de género, por la eliminación de la discriminación que sufren determinados colectivos en razón de su orientación sexual, por la integración socio-laboral de mujeres en situación de especial vulnerabilidad.
- Desarrollo de un mayor conocimiento sobre la realidad de la situación de mujeres y hombres en la provincia a través de estudios y el análisis .
- Fomento de acciones públicas y privadas para la Igualdad.
- Coordinación inter e intrainstitucional , esta última a través de la Comisión interdepartamental para la Igualdad.

## 2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 90 GAZTERIA ETA GIZARTE SUSTAPENA

**Programa:** 92 BERDINTASUNERAKO POLITIKA

**Azkenean gauzatu diren jarduketak honakoak dira:**

1. AFAko langileen diagnostikoa, berdintasunari dagokionez. AFAn berdintasun politikak ezartzeko aukerak eta zailtasunak:

   Diagnostikoa amaitzea eta haren emaitzak Diputatuen Kontseiluari, zuzendaritzei, plantilla osoari, Sailen arteko Batzordeari eta Langileen Batzordeari jakinaraztea.

2. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Foru Planari buruzko lanen hasiera. Aurreko puntuan aipatutako langileen diagnostikoaz gain:

   - Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Foru Plana gauzatze aldera, lanaren oinarria izango den agiria egitea.
   - Oinarria izango den agiria zuzendaritzei eta Sailen arteko Batzordeari aurkeztea.
   - Sailkako lanaren prozesua hastea, III. Planaren oinarri izango den agiria eta lan ildoak aurkezteko eta sailkako ekintzak zehazteko.
   - AFAko berdintasun politiken ibilbide historikoari buruzko azterketa egitea.
   - Prestakuntza.
   - Prestakuntza jardunaldi eta mintegiak prestatzea, diputatuentzat, zuzendaritzentzat eta Berdintasunerako Sailen arteko Batzordeko langileentzat.

3. Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Batzordeari dagokionez, kuadrilletan honako ekintzak egin dira:

   - Berdintasunari buruzko prestakuntza, kuadrilla guztietan
   - Sentsibilizazio ekintzak: Ez: berdin zentroaren aurkezpena
   - Ekainaren 11an, eta elkartegintza mugimenduan sortutako ekimen gisa, jabekuntzari buruzko jardunaldi hau antolatu zen: "*Arabako landaren*

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

**Departamento:** 90 JUVENTUD Y PROMOCION SOCIAL

**Programa:** 92 POLITICA PARA LA IGUALDAD

**Las actuaciones finalmente desarrolladas han sido:**

1. En relación al Diagnóstico del personal de la DFA en relación a la Igualdad. Oportunidades y dificultades para la implementación de políticas de Igualdad en la DFA:

   Finalización del mismo y comunicación de de los resultados al Consejo de Diputados y Diputadas, a las direcciones, al conjunto de la plantilla, a la comisión interdepartamental y al Comité de trabajadoras y trabajadores.

2. En relación al inicio de los t rabajos del III Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además del propio Diagnóstico del personal citado en el punto anterior:

   - Realización del documento base de trabajo para la elaboración del III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Alava.
   - Presentación del documento base a las direcciones y comisión interdepartamental.
   - Inicio del proceso de trabajo por Departamentos para la presentación del documento base y líneas de trabajo del III Plan y para la concrección de las acciones por departamento.
   - Elaboración de un estudio sobre el recorrido histórico de las políticas de Igualdad en la DFA
   - Formación
   - Realización de diferentes jornadas y seminarios de formación dirigidos a Diputados y Diputadas, Direcciones y personal de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad.

3. En relación al Foro para la Igualdad de Oportunidades de Mujeres y Hombres se han realizado en las Cuadrillas las siguientes acciones:

   - Formación en Igualdad en todas las Cuadrillas
   - Acciones de sensibilización: Presentación del Centro Ez: berdin
   - El 11 de junio, y como una de las iniciativas surgidas en el movimiento asociativo, se organizó la Jornada sobre empoderamiento

*errealitatean, nekazaritza ustiapenetako titulartasun partekatua: emakumeak eta lurraren jabetza*".

- Azaroan, hiru eguneko prestakuntza saioa antolatu zen elkarteentzat, dirulaguntzak jasotzeko proiektuak egiteari buruz.
- Berdintasunerako III. Foru Plana egiten parte hartzea. Abenduaren 12an, lan saio bat egin zen elkartegintza mugimenduarekin, Berdintasunerako III. Planari buruzko proposamenak egiteko.
- Elkartegintza mugimenduarekiko partaidetzaren arloan praktika onak bilatzea eta batzea, Berdintasunerako Batzordearentzat onena den gizarte partaidetzaren eredua eztabaidatzeko eta proposatzeko.

4. Berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio kanpainei dagokienez, honako ekintza hauek egin dira:

- Martxoaren 8aren ospakizuna, Aldundiko Biltzar Nagusien aretoan. Oroitzapenezko kartelaren diseinua.
- Ekainaren 28ari (gay, lesbiana, bisexual eta transexual harrotasunaren eguna) buruzko ekimenak. Oroitzapenezko kartelaren diseinua eta hitzaldia Artiumen, Aldarte taldearekin, "Emakumeen ahotsak sexu aniztasunean" lelopean.
- "Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna" (azaroaren 25a) dela-eta, Aldundiaren Kontseiluak Erakunde Adierazpena onartu zuen; bertan, erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten politikak abiarazteko daukan konpromisoa adierazi zen. Horrez gain, Aldundiko langileei dei egin zitzaien, 5 minutuz Probintzia plazan elkartzeko. Azaroaren 27an, Immigrazioaren I. Foru Planeko ekintzen barruan, emakumeen aurkako indarkeriari eta immigrazioari buruzko jardunaldia antolatu zen.

5. Gizonen eskutik genero berdintasunaren aldeko

"*Titularidad compartida en las explotaciones agrarias en la realidad rural alavesa: las mujeres y la propiedad de la tierra*".

- En el mes de noviembre se organizó una sesión formativa de tres días para asociaciones en torno a la elaboración de proyectos para subvenciones
- Participación en la elaboración del III Plan Foral para la Igualdad. El 12 de diciembre se realizó una sesión de trabajo con el movimiento asociativo para la elaboración de propuestas para el III Plan de Igualdad.
- Búsqueda y recopilación de buenas prácticas en el área de participación con el movimiento asociativo con el fin de debatir y proponer el modelo más óptimo de participación social para el Foro por la Igualdad.

4. En relación a las acciones de sensibilización en relación con la Igualdad, se han realizado las siguientes acciones:

- Acto de Celebración del 8 de Marzo en la Sala de Juntas Generales de la Diputación. Diseño de un cartel conmemorativo.
- Iniciativas en torno al 28 de Junio, días del Orgullo gay lésbico trans y bisexual. Diseño de un cartel conmemorativo y organización de una charla en el Artium con el colectivo Aldarte bajo el título "Voces de las mujeres en la diversidad sexual".
- En relación al 25 de noviembre "Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres", el Consejo de la Diputación aprobó una Declaración Institucional, en la cual se manifestaba el compromiso de la institución en la puesta en marcha de políticas que promuevan la igualdad entre mujeres y hombres. Junto a ello se convocó al personal de Diputación a concentrarse por espacio de 5' en la Plza de la Provincia. El 27 de noviembre, en el marco de las acciones del I Plan Foral de Inmigración se organizó una jornada en torno a la violencia contra las mujeres e inmigración.

5. En relación al apoyo específico a iniciativas

konpromiso handiagoa lortzea xede duten ekimenei berariazko laguntza ematea, genero indarkeriaren aurkako gizarte sentsibilizazioaren alde, talde batzuek beren orientazio sexuala dela-eta jasaten duten bereizkeria ezabatzearen alde eta egoera ahulean dauden emakumeak gizarteratzearen eta laneratzearen alde egiteko.

- Lankidetza hitzarmena Gasteizko Elizbarrutiko Caritasekin, Gasteizko Alde Historikoko Andra Mari emakumeen sustapenerako zentroan emakumeen sustapenerako programa egiteko.
- Lankidetza hitzarmena Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako landa giroko emakume sarearen artean, zenbait jarduera gauzatzeko, besteak beste: Informazio aldizkaria, landa giroko emakumeen topaketa eta foroetako partaidetza eta esperientzia trukaketa.
- Lankidetza hitzarmena Arabako Foru Aldundiaren eta Lesbitoria-Gaysteiz Taldearen artean, “Homofobia eta transfobia ezabatzeko jardueren programa, Arabako Lurralde Historikoan beren orientazio sexualarengatik bereizkeria jasaten duten pertsonei laguntzeko neurriak barne hartzen dituena” gauzatzeko.
- Lankidetza hitzarmena EZ:BERDINekin: Maskulinitate eta sexismo arloetan esku hartzeko eta horiei buruzko prestakuntza eta ikerketa bultzatzeko zentroa. Programa honen xede nagusia gizonen parte hartze handiagoa lortzea da, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortze aldera.
- Hitzarmena Eusko Ikaskuntzarekin. “Generoaren eta feminismoen azterlanak: sareak eta prestakuntza" Proiektu honen xedea emakumeek historian zehar jakintzaren esparru guztietan egin duten jardunaren berri ematea da.
- Hitzarmena Sendoturekin. "Gizarte bazterkeriako egoeran dauden emakumeak



dirigidas a lograr un mayor compromiso de los hombres por la igualdad de genero, que trabajen por la sensibilización social contra la violencia de género, por la eliminación de la discriminación que sufren determinados colectivos en razón de su orientación sexual, por la integración socio-laboral de mujeres en situación de especial vulnerabilidad.

- Convenio de colaboración con Cáritas Diocesana de Vitoria-Gasteiz para el desarrollo de un programa de promoción de la mujer dentro del Centro de Promoción para Mujeres “Santa María” en el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz.
- Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y la Red de Mujeres del medio rural de Álava para la realización de diferentes actividades como: Boletín informativo, Encuentro de mujeres del medio rural y participación en foros e intercambio de experiencias.
- Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y la Asociación Lesbitoria-Gaysteiz Taldea para la realización de un “Programa de actividades para la eliminación de la homofobia y transfobia que incluya medidas de apoyo par apersonas que sufran discriminación por razón de su orientación e identidad sexual en el territorio histórico de Alava”.
- Convenio de colaboración con EZ:BERDIN: Centro de intervención, formación e investigación sobre masculinidades y sexismo. Su objetivo general impulsar una mayor implicación de los hombres en la consecución de la igualdad entre mujeres y hombres.
- Convenio Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos. “Estudios de género y feminismos: redes y formación”. Este proyecto tiene como objeto dar a conocer la actividad de las mujeres a lo largo de la historia en todas las áreas del saber.
- Convenio Sendotu. “Inserción laboral de la mujer en exclusión social”. Este programa tiene

laneratzea". Programa honek laneratzea, gizarteratzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko jarduera programa egitea du helburu.

6. Emakumeek eta gizonek probintzian duten errealitateari buruzko ezagutza sakonagoa garatzea, azterlan eta ikerketen bidez:

   Honakoak egin ziren: “Generoaren ikuspuntutik Arabako errealitatearen azterlan diagnostikoa” eta “BFAren ibilbidea, berdintasunari dagokionez” izeneko txostena.

7. Udaletan eta kuadrilletan berdintasunerako ekintza publiko eta pribatuak sustatzea:

   - Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeentzako dirulaguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera jarduerak garatzeko. Guztira 39 proiektu lagun ziren diruz.
   - Erakunde publikoei dirulaguntzak emateko deialdia, genero berdintasunaren arloko ekintzak egiteagatik. Guztira 32 proiektu lagun ziren diruz.

8. Erakundeen artean eta erakundearen barruan koordinatzea; azken kasu horretan, Berdintasunerako Sailen arteko Batzordearen bidez.

   - Sailen arteko Batzordea, nagusiki, Berdintasunerako III. Foru Plana egiten hasteko eta Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzaren ekimenei buruzko informazioa batzeko bildu zen. Halaber, lengoaia ez-sexistari buruzko mintegia antolatu zen, bai Sailen arteko Batzordearentzat, bai AFAko langile guztientzat, baina, bereziki, Batzordearentzat.
   - Emakundek koordinatzen duen Sailen arteko Batzordeari dagokionez, Batzorde Politikoaren bidez batu zen. Bestalde, Berdintasunerako V. Plana egiteko deitutako lan saioetan parte hartu zen.

como objetivo la realización de un programa de actividades para el fomento de la empleabilidad, la inclusión social y la igualdad entre hombres y mujeres.

6. En relación al desarrollo de un mayor conocimiento sobre la realidad de la situación de mujeres y hombres en la provincia a través de estudios y el análisis:

   Se realizó un "Estudio diagnostico de la realidad alavesa desde una perspectiva de género" y un un informe sobre “El recorrido de la DFA en relación a la Igualdad”.

7. En relación al  fomento de acciones públicas y privadas para la Igualdad en los Ayuntamientos y Cuadrillas:

   - Convocatoria de subvenciones a Asociaciones  y Entidades sin ánimo de lucro, para el desarrollo de actividades destinadas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres. Se subvencionaron un total de 39 proyectos.
   - Convocatoria de  subvenciones a entidades públicas por la realización de acciones en el ámbito de la igualdad de género. Se subvencionaron un total de 32 proyectos.

8. En relación a la coordinación inter e intrainstitucional , esta última a través de la Comisión interdepartamental para la Igualdad.

   - La comisión interdepartamental principalmente se reunió para dar inicio a la elaboración del III Plan Foral para la igualdad y recabar información sobre las iniciatiavas de la direcciónd e promoción social. Así mismo se impartío un seminario sobre el uso no sexista del lenguaje dirigido tanto a la comisión interdepartamental como a las dabierto a todo el personal de la DFA pero específicamentedirigida a la comisión.
   - Respecto a la comisión interinstituacional coordinada por Emakunde,  se reunió a traves de la comisión política. Por otro lado se participó en las sesiones de trabajo convocadas para la realización del V Plan de Igualdad.

## 2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 90 GAZTERIA ETA GIZARTE SUSTAPENA

**Programa:** 92 BERDINTASUNERAKO POLITIKA

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Arestiko memoriak egiaztatzen duenez, programatutako helburuak behar bezala bete dira, eta agerian geratu da hurrengo ekitaldietan ekintza batzuk mantentzeko eta areagotzeko premia.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

**Departamento:** 90 JUVENTUD Y PROMOCION SOCIAL

**Programa:** 92 POLITICA PARA LA IGUALDAD

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Tal como acredita la memoria anterior los objetivos programados se han cumplido satisfactoriamente, evidenciando la necesidad de mantener e incrementar determinadas acciones en ejercicios sucesivos.